

## Amaia Alday Binakako Master Laboral Kutxa Txapelketako txapeldun

Amaia Alday Dimako pelotariak eta Oihana Orbegozok binakako txapela jantzi eben, finalean Patri Espinar eta Naroa Agirre 22-15 irabazita. Arrigorriagan jokatu zan finala, abenduaren 20an. Partidua galtzean hasi ziran gorriak, baina atzetik aurrera egin eta irabaztea lortu eben. Aldayk peloteari emondako abiadura erabakiorra izan zan horretan. **10. orrialdea**



**Gorria flamenko ikuskizuna Igorreko Lasarte Aretoan urtailaren 16an**  
**12. orrialdea**

## Txikon Manaslun tontorra egiten saiatuko da

Beragaz batera, Simone Moro, Iñaki Alvarez, sherpak eta beste aditu batzuk joango dira.

**E**spedizinoa abenduaren 31n abiatu zan Katmandura eta Kanpamentu Nagusira (4.900 metro) urtailaren erdialdera heltzea aurreikusten dabe. Bide klasikotik igoten saiatuko dira eta aurreikuspenak bete ezker, hilabete eta erdi emongo dabe Kanpamentu Nagusian.

Espedizinoak izaera sozial nabarmena izango dau eta hainbat alkarte eta fundazinok lagunduko dabe. Gainera, modu jasangarrian kudeatuko dabe. **11. orrialdea**



## XV. mendeko zeanuriztar baten abenturak

**A**zalgorri ezizenez ezaguna zan zeanuriztar baten barri dakar Alvaro Rabellik erdiko orrialdeetara. Azalgorri zalduna *Errodrigo Zaratekoaren* kantu epikoan agertzen da. Balada edo kontapoema honeek gure literaturearen kantu, testu eta istorioen moltso harrigarria osotuten dabe eta XV. mendeko gertaeren barri emoten deuskue. **8. eta 9. orrialdeak**



### ARRATIA

## Gabonetako programetako urtailerako jarduerak herrietan

Ez aurreko urteetan beste ekin-tza baina kultura jarduerak dagoz programauta urtailerako Gabonetako programetan. Izan be, udalak eta alkarteak ahalegina egin dabe herritarrok urtea irribarrez eta ilusinoz hasi daigun.

Holan, hilaren 4an, Igorreko Lasarte Aretoan Yllana konpainiak *Greenpiss* umorezko antzezlan eskainiko dau. Hurrengo egunean, Errege Magoen ikuskizunak egongo dira Bedia, eta Igorren.

Lemoan, Raust taldearen kontzertua dago programauta Gaztetxean eta Zeanurin Kidam magoaren ikuskizuna. **7. orrialdea**

## Hiru herriak batera egingo dabe hornidura elektrikoaren esleipena

Holan, energia garbia %100 erosi eta prezioan %10eko jeitsiera lortzea espero dabe. Baldintzetan hiru udalen artean, 1.215.000 KW gixi gorabeherako konsumoa eskaintzen da. Eskaintza publikora urte biko kontratua ateraten da eta hirugarren bat luzatuteko aukerea dago. **7. orrialdea**



### ARANTZAZU, AREATZA, ARTEA

## Diru sarrera txikiagoak izango dabez udalak 2021ean

BFAko Udalkutxatik diru sarrerak muriztu egin dira eta 2020koak baino aurrekontu txikiagoak onartu ditue Areatan eta Artean, %8 eta %3, hurrengoz hurrengo. Arantzazun, urteko kontuetan igaz sartu ez zan azpiegiturako dirulaguntzea sartu dabe. **5. eta 7. orrialdeak**

**EKIN**  
eraiketak

**30 urte behar**

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)  
[eraiketak@construccioneseekin.com](mailto:eraiketak@construccioneseekin.com)



# Literatura txokoa

## EUP!

Egia bat esateagaitik. Donibane Lohitzunen inprimatua, inprimatzen ziran lekuan behinola iraultzaren letrak, Lapatzabakarren *Eup!* irakurtea izan da Monzonen guduzelai modernoetara bueltetea, Arestiren poesia soziala barriro ahoan ibiltea, edo Bitoriano Gandiagaren natura atzera bisitetea. Lapatzabakar dalako honek ez dau gura izan, hamarkada luzeotan, bere burua agertu. Errespetauko deusagu hori. Baina horrek ez dau esan gura, bere izen-abizenak ez badira be, bere obra ezin dogunik fonderatu. Gaitzen hau harro aitatu behar leitekete gure haraneko, Bizkaiko zein Euskal Herriko idazleen urrezko orrietan. Bere tertzioko egiak kantau ebazan: langile izerdia,

nazinoaren kartzela, askatasun burrukea, maitasuna. Ez dira, bada, azken batean, gure garaiko ardura berberak? Liburu honek dakar eten ez dan kate baten ikonografia, desengainaduen biblia arratiarra da: "Egi/ askatasuna/ justizi/ erria/ horra hor euskaldunok/ nahi dugun argia". Benito Lertxundiri Abel Muniategik egindako kantu baten antzera, edo Xabier Leteren aire sinbolista baten moduan, Lapatzabakarek edaten dau baliabide eta molde herrikoietatik, baina literatura europar moderno egiteko.

Izan be *Eup!* hogeigarren mendeko bigarren zatian altxau ziran gazteen bihotz suharren produktua da, eta Euskal Herriari setioa apliketan eutsien sasoiatako

epikak busti dau, derrigor -azaleko "Pietà" horrek be seminarioko airea dauka-. Amari eskainia dago -"berak irakatsi baitzait zein dan nire aberria"-, eta maiteari be bai, eta abertzale danai. Baina ezin da katalogau burruka-literatura lez, badauka-eta lirika fin bat puntako obra bihurtzen dauana: "Larrosak erein zituen baina/ sasiak eta otak erne dira,/ eta lorategia deitzen dio oraindik". Ederra da. Burrukea eta petaloak, biak liburu bereberan.

Uda partean pasau eustien *Eup!* en ale bat. Klandestinidadeko gauzak pasetan ziran moduan heldu jatan esku artera. Oin ez daukat, jaubeari bueltau behar izan neuntsan-eta. Dana dala, irakurketearan gozamina eta hi-

tzaurrearen emozinoa eta poema batzuen perfekzioa geratu jataz ahozeruan. Eta zuokaz gorazarre hau konpartiduteko gogoia be bai, behar bada inoz irakurriko ez dozuen poemategi itzel honena.

**Igor Estankona**



**Lapatzabakar**

**Eup!**

**Poesia, Editions Axular, 1976**

### TELEFONO INTERESGARRIAK

#### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

#### Guardiako Farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**

#### Urtailaren 4tik 10era

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

#### 22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

#### Urtailaren 11tik 17ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

#### 22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

#### Urtailaren 18tik 24ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

#### 22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

#### Urte osoan

#### 22:00etatik 09:00etara

Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

#### Medikuak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

#### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

#### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

#### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren** 94 433 33 33

**Areatzako Notarioritza**

94 673 92 26

#### Bizkaibus 94 612 55 55

#### Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

#### Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

#### Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

#### Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

#### Zeanuri-Lemoa-Bilbo

#### (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Bilbo-Lemoa-Zeanuri

#### (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

#### Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaoetik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

#### Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaoetik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Ermibarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

#### Arriorriaga-Ermibarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

#### La Union 94 427 11 11

#### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

#### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

**Publizitatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Iraia Herrero eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu,

Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia

(Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga

(Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.



### Babesleak:



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zerbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zerbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Txorimalo



Txorimalo esaten jako txoriak izutu eta soloko/ortuko haziak eurakandik babesteko baserritarrak egiten dauan guzurrezko zaintzailearen irudiari (txorimaloa, ahoskatuta). Arratia inguruan, malo (Ubiden jaso) eta txuzo berbak be erabilten dira. Erropa edo trapu zati batzuek eginda ikusten dira, eta, tamainu handian bada, txorimaloak lorpen hobeak izango ditu. "Txorimaloari begira egon" esamoldea entzuten badozu, irakurle, zera esan gura dau: denporea arpelik galtzean zabizala.

## ERETXIA

### Homo homini lupus est

Personea personarentzat otsoa da, horixe dino latinez hain ezaguna dan esaldiak. Irakasle zoragarri bategaz, Anjelegaz, igarotako orduak gogorarazoten deustaz esaldiak, artean, ez nekian nor zan Thomas Hobbes.

Esakerea Hobbes-ek, XVII. mendeko filosofo ingelesak, moldatu eta ezagutarazo eban *De Cive* bere lanean. Mende batzuk joan dira geroztik, baina esakera horrek indar berezia hartu dau egun bizi dogun jendartean, zer esanik ez azken urte honetan ikusi doguzan hainbat egoera eta joera aztertu ezker.

Europako herri aurreratuenen artean gengoza sinistu arazo euskuen, baina dirugoseak eta ardurabakokeriak langile bi ehortzi ebazan igazko urte hasieran, Alberto Sololuzere eta Joaquín Beltrán. Bigarrenaren gorpua han dago. Gardentasun gitxi eta ardu- gitxiago, zaborra ugari.

Ostean etorri jakun pandemia ate joka eta Europako osasun sistema onena geunkalakoan gengoza koitaduok! Barriz be zaborra! Izan be, mediku eta erizainak zabor boltsakaz babesten ikusi behar izan genduzan material falteagaitik. Guk guanteak erabilten genduzan babesteko, maskarillak ez ei ziran beharrezkoak, ez egozan eta! Osasun sistema onik ez daukagunik ez dot esango, langile zoragarriak daukaguz arlo horretan, baina errekursoak eta personala falta dira, murrizketa larregi azken urteetan. Arratiako egoera ikusi besterik ez dago, medikuen oporraldiak ez dira ordezkutzen, pediatrik falta, mediku espezialistak sei hilabetetako itxaron zerrendak, hitzorduetan atzerapenak...

Osasungintzan atzerapenak egon leitezke, hauteskundeetan ez! Neurri zorrotzak baretzen hasi ziran hauteskundeak burutu ahal izateko, gobernu autonomistak eta zentralak deseskalatzea arintzea adostu eben, osasun



### ARKAITZ ESTIBALLES

Bertsolaria

zuzendariak, Jon Sánchezek, pandemia erdian dimitidu behar izan eban, Castrora joatearren. Sagarduik, sailburu barriak, pandemiaren bigarren olatuari aurre egiteaz gain, dimisinoen bigarren olatuari be egin beharko deustso aurre, ointsu dimitidu dabe pandemiaren kontrolerako koordinatzaileak eta sailburuordeak, azalpen argirik barik!

Pandemiak gogor zauritu dauz 3. adineko egoitzak. Baina zein zaintza eredu gura dogun be ezbaian jarriko ete dau? Egoitza horreetatik zenbat dira gestino publikoak daukienak? Pribaduak diranak zeintzuen eskuetan dagoz? Zabortegien inguruan legez dirugoseak gestionetan ete dauz? Gogoratzen ete doguz bertako langileak baldintza hobeen alde egindako burrukaldi luzeak? Urru- negi joan barik topauko doguz erantzunak, baina memoria laburrekoak gara.

Ezin aiatu barik itxi langileak, lana galdu dabenak -Arratian larregi zoritxarrez-, Ertean dagozanak, ostalariak, turismoaren inguruan lan egiten dabenak... Banketeak erreskatatu ziran, baina zelan erreskatatuko doguz personak? Ze proiektutarako erabiliko dira aurrekontuak eta Europako dirulaguntzak?

Pandemia honek beste pandemia batzuk be estali dauz: jazarpen politikoa, indarkeria matxistea, xenofobia... Oin ez dagoz informatiboetako titularreran, lehen be ez: Bateragune auzikoak -erru barik kartzelartuak, kondena osorik bete eta barriz epaitu gura dabezanak-, motxiladun haurrak -gurasoak bisitetako milaka kilometro egitera behartuak gurasoak etxean behar leukienean-, Irune Costumero -laugarren gabonak ume barik etxean- edo Moriako kanpalekuan dagozanak, besteak beste.

Izenburuko esaldia Plautorena da berez, eta bigarren atal bat dauko, *Lupus est homo homini, non homo, quom qualis sit no novit*. Ezagutzatik eta eretxi kritikotik badago esperantzarako tartea, beraz! Urte barri on danori! Zaindu maite dozun hori!

arrazoiak tarteko? Edo norberaren interesai jarraiki? Pandemiari hobeto aurre egiteko gobernu barria behar zala iradoki euskuen, baina Nekane Murga sailburuak ez eban kargua barriztu, Gotzone Sagarduik hartu eban haren aulkia. Nekane ez barrizteak ez eban inor lar harritu, aurreko lantalde gehienak 2019ko urri lehenengoan itxi ebazan karguak Osakidetzako oposaketetan atzemandako fraudeagaitik, eta danok etxean gengozean, Osakidetzako emergentzietako

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askitasun 28, 1B - 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: [gorbeialde@gorbeialde.com](mailto:gorbeialde@gorbeialde.com)

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsinoak  
Lentillen adaptazinoak  
Kiroletarako betaurrekoak  
Salbino Arana 3, 48140 ICORPE (Bizkaia)  
☎ 94 657 70 03 - [olaetxeoptika@hotmail.es](mailto:olaetxeoptika@hotmail.es)

**Kili-Kili**  
Amopu eta Puzatutakoak  
Lehendakoa Agirre 10 - ICORPE (Bizkaia)  
Tel.: 94 673 43 81

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39  
Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24  
Arkaitz 677 46 40 91  
Galdar 666 58 20 06  
Puzutu polygona, 10 LEMOA • [beeredariak@gmail.com](mailto:beeredariak@gmail.com)



## LUMATUTEN

MAITE ARTABE  
URKIRIGalapagoak  
versus Antartida

**G**alapagoetako ubarriok jadanik ez dabe hegaz egiten. Zetako hegaz egin paradisu bizi ezker? Mobidu be, oso kasu arrarotetan bakarrik mobiduten dira erroproduziduten diran lekutik kilometro bat baino harago. Milaka urteko janari oparotasunak eta depredadodetik ezaren ondorioz eboluzionau dabe holan.

Bere familiako handienak dira, 5 kilo pisatutera heldu leikez, goikaldean balzkarak eta azpikaldean arreak.

Eboluzino horrek, halanda be, arriskuan ipinten dau irletara gizakia txakur eta katuakaz heldu danetik.

Ez da moralki ona ez txarra, euren eboluzino naturala besterik ez.

Norbere konfort gunetik urten/ ez urten dilemearen metafora ezin egokiagoa eretxi deusat.

Gu bizi garan leku eta sasoiain hainbatek aukerea daukagu bata

ala bestea egiteko: konfort gunean bizi ala erronka barriai ekin.

Aukeratu egin behar jakinda modu baten erosoago eta errazago biziko garala baina hego barik eta arrisku egoeratarako defenza gitxigaz; eta bestera izaki zalagoak, biziagoak izango garala baina gehiago sufriduta, dana gatxago izanda. Psikologoaren eretxiz, ezbeharrean bizten jakuz erosotasunean lotan legokezan gaitasunak.

Ubarroien kasuan legetxe gunean be seguru asko ez da moralki ona ez txarra, baina gizakiak izanik eta aukerea eukita, ebatzi egin behar bizitzako bidekurutzetean zelan eboluzionau gura dogun: Galapagoetako ubarroien moduan ala Antartidakoen antzera.

Antartidako ubarroia ederra da, begi urdin hipnotizatzaile-duna eta lumaje zuri baltzduna, argazkietarako aproposa; arina be bada, orduko 50 kilometroko belozidadera ailegau ahal da eta bere gehinezko pisua 3'5 kilokoa da. Gabeziak, lanak eta porrotak eroan dabe etenbako eboluzinora eta horixe dau defenza mekanismorik onena.

Gero eta txikiagoa naz, ulea zuri-baltza, zientzietarako zaletasuna biztu jata, sekula jaramon egin bako sudokuetako zenbakari adi nabil eta batzuetan hortzikarak sentiduten dodaz, baita hotza be askotan; Antartidako haizeak jo ete nau?

## ZERTZEAN

ANDONI SOLOZABAL  
IGLESIAS

1

Hasi jakula urte barria eta zaharra bukatu urte lanbrotsu ilun honetan ez dogu asko gozatu beldurrak guztiz meperatuta gaituzte giltzaperatu baina batzuk ondino ez gara zer pasau dan konturatu.

2

Urte hasieran birus gaitzo bat Txina aldetik gurera kulpa xaguzarrena omen da adituen arabera munduko agintari krudelek ikusi dabe aukera ta bizkor heldu dira gurekin nahi dabena egitera.

3

Irribarrea bistatik kendu alkar besarkatu gabe nortasun barik itxi gaituzte ta hori da oso grabe gorputzan jabe garelakoan inor ez da burujabe Amazon-en bezero leiala itsu ta mutu nahi dabe.

4

Beldurra beti erabili da menperatzeko herria gobernuaren laguntza eske makurtu gure gerria ekonomia gainbe(he)ra dator balore krisi larria ingenieritza soziala ez da gauza moderno barria.

5

Azkenaldian jende gehiena guztiz lur jota ari da utzikeria ta etsipena jatorkuz gure herrira Ama lurrari begira barik danok lurrera begira agindu dabe ohitu gaitezen normalitate berrira.

6

Telebistan esaten dabena galbahe baten pasatu begiak zabaldu ta pentsatu bide luzetik ausartu nire iritzi umil zintzoa nahi dozun moduen hartu ta guztiz ados egon ezeean bertso honeek ez kantatu.

og

## BEGI TXINDORRA

**S**asoi baten, tabernak beti zabalik egoten ziran sasoi haretan, komun publikoak ez eben emoten hain beharrezkoak. Ha-ta guzti be, baegoan jentea komun publikoak eskatzen ebazana, ezer konsumidu barik komunera joan ahal izateko.

Pandemia sasoiain ikasi dogun gauzetako bat izan da ezin dala ezer segurutzat emon. Ezta, paseoan urten eta txizagurea euki ezker, taberna adina komun eukiko doguzala erabilgarri be. Izan be, edozein momentutan dekretu batek tabernak zarratu arazo leikez eta tabernakaz batera komunak, jakina! Hori dala eta, komun publikoak inoz baino beharrezkoagoak dira.

Zeanurin, jubiladuen tabernaren ondokoak barriztau egin ditue eta zabalik egon dira tabernak zarratuta egon diranean. Garbi eta dotore. Zeozer faltan botatekotan, espilua litzateke. Izan be, Titanic hondorazten egoanean, heriotzearen aurrean, ezpanak pintau ei ebezan han joiazan andra batzuek. Oin be, dana hondoratzen doan honetan, batzuk, espilu bat behar izango dabe eskura, eta danok, komun publiko garbi eta dotoreak, Zeanurikoak lez, Arratiako herri guztietan.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisci.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odonatologia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zirkulari 101  
R.F.S. 21/06

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA - SINTASOLA - PAPEREA  
Elexaola, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)  
Tel. 94 621 64 62 - 608 664 018

Sabandakari Agiri 11  
**Erroitz**  
Agiriaren gaurtik aurrera.



AREATZA

## Aurrekontuak onartu arren, momentuko preminetara egokituko da gastu publikoa

Abenduaren 29an onartu ziran Areatzan 2021eko aurrekontuak EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren abstentzinoagaz.



### Erredakzioa

Kontu honeen arabera, Udalak 1.375.985 euro kudeatuko ditu, igaz baino %8 inguru gitxiago. Energia kudeaketa hobetzea eta kontsumoa murriztea, zerbitzuak hobetutea, lanpostuak sortzea, ekonomia bultzatzea, COVID-19ak sortutako arazoai aurre egitea eta bide publikoen inbentarioa amaitutea dira, besteak beste, aurrekontuak egiterakoan kontuan izandako lan-ildoak. Billaroztarren lehenetsunak zeintzuk diran jakiteko inkesta bat zabaldu eban Udalak, eta erantzundako 66 inkesta jaso ebazan.

### Inbersinoak eta dirulaguntzak

Onartutako aurrekontuak gastuak murriztu ditue aurrekusten dan diru sarrera txikiagoetara egokitzeko. Izan be, diru sarrera guztiak apalagoak izatea espero da eta gastuak handitu egin dira: lanpostuen balorazioa egin eta lanpostu barriren bat be sortu da, garbiketa gastuak handitu egin dira, eta abar. Ha-ta guzti be, hainbat partida zabalik ixtea ebatzi dabe aurreko urteetako gerakina zein dirulaguntzakaz osotuteko.

Inbersinoetarako 174.500 euro dagoz. Batez be, aurreko urteetan hasitakoak jarraituteko. Holan, irisgarritasunerako 50.000 euro

dagoz eta argiteriarako 40.000, berbarako. Bideen konponketak eta saneamentuaren garbiketara egiteko be badago dirua.

Dirulaguntzetarako 150.000 euro dagoz. Hau da, aurreko urteetako dirulaguntzak mantentzen egin dira. COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurriak kaltetutai lagunduteko beste erakundeetako laguntzak nahikoak ez diranean, erremamenteko diruagaz emongo dirala laguntzak azaldu eban Asier Garcia Areatzako alkateak.

### EAJ-PNVren abstentzinoa

Jeltzaleak aurrekontuak murrizteagaz desadostasuna agertu eban. Euren ustez, egoera honetan handitu egin beharko litzatekeez. "Krisialditik aterateko, herria bultzatu behar dogu bizitza soziala berreskuratzeko". Eta horretarako, euren ustez, partida handiagoak egon beharko litzatekeez, ostalaritza, merkataritza eta turismoari lagunduteko.

Abstentzinoa emon eban eta ez ezezko botoa, lanean jarraituteko aukera badagoalako.

ARANTZAZU

## Inbersinoetarako diru gehiago 2021ean

### Erredakzioa

Arantzazuk abenduaren 22an onartu ebazan 2021eko udal kontuak. Herri txikietan ohikoa dana lez, Arantzazun be Bizkaiko Foru Aldundiko Udalkutxa da diru sarrera nagusia eta 2020an, Udalkutxatik aurrekutsitakoa baino 45.000 euro gitxiago jaso ebezan. Aurreko urteetako diru-soberakinakaz bardindu da aldea.

2021eko aurrekontua 503.911 eurokoa da eta 2020koa 498.282 eurokoa zan. Handiagoa emon arren, errealidadean 25.000 euro txikiagoa dala azaldu deutso BEGITUri Asier Aburto Arantzazuko alkateak. Izan be, aurtengoan, azpiegituretarako eskatutako dirulaguntzak sartu ditue (26.000 euro) eta igazkoan ez zan dirulaguntza hori sartu. Aurten Udalkutxatik 351.747 euro jasotea espero dabe. "Diru sarrerak eta gastuak errealidadera egokitzen joan gara eta azkenean inbersinoetarako diru gehiago lortu dogu" dino alkateak.

### Eguzki plakak eta COVIDak kaltetutako dirulaguntzak

Aurrekontuetako proiektu nagusia, Zelaia 2. fasea deritxana da. Zubitik mediku etxeraino ur-hornikuntza sarea aldatu behar da eta, bide batez, beste zerbitzu batzuk lurperatzeko

azpiegiturek egingo dira. Amaitzeko kalea ondo txukunduko da. "Lan honeek 79.000 euroko kostua izango dabe; horreetatik 44.000 euro aurrekusten dira aurrekontuan. 44.000 euro honeetan azpiegituren dirulaguntza (26.000) sartuta dago. 79.000 euro arte falta diran 35.000 euroak diru-soberakinatik hartuko doguz" azaldu dau Aburto.

Udal eraikinetan, udaletxean eta liburutegi gainean eguzki energia elektrizitate bihurtuko daben plakak ipiniko dira; honek, 17.000 euroko kostua dauka. Instalazinook aitatutako eraikinak horniduko dabez eta elektrizitate soberakina dagoanean sare nagusira joango da, Udalarentzat diru iturri barria izango dana.

COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurriak kaltetutai lagunduteko 10.000 euroko partida bat dago, familiak eta herriko autonomoak lagundu ahal izateko, hain zuzen be. 2020an zehar dirulaguntzak emon ziran eta 2021ean barriro dirulaguntzak emon behar badira, diru partida zabalik dago eta ez da kreditu aldaketarik egin behar izango. Bideak konponduteko 8.000 euroko aurrekontua dago. Partida hau urtean zehar beste 12.000 eurogaz horniduko da dirua soberakinetatik hartuta.

ARRATIA

## Errota Fundazioak Zilarrezko Bikain ziurtagiria lortu dau

Ziurtagiriak esparru sozioekonomikoan euskerearen presentziaren, erabilerearen eta hizkuntza kudeaketaren normalizazio maila egiaztatu eta aitortzen dau. Eusko

Jaurlaritzak enpresa edota erakundeai emoten deuten ziurtagiri ofiziala da Bikain.

Abenduaren 17an, ziurtagiria 17 enpresak jaso eban; tartean, Arratiako Garapen

Sozioekonomikorako Errota Fundazioak. Ekitaldia Bilboko Euskalduna Jauregian izan zan.

### Erredakzioa

Ziurtagiriak euskereak lan eremuan daukan balioa adierazoten dau eta enpresa eta erakundeai onurak eskaintzen deutsez: "negozio aukera barriak sortu; zerbitzuari balio erantsia emon, lehiakortasuna handitu; eskariari profesionaltasunez erantzun; konfiantza eta gertutasuna emon; lantaldearen motibazioa, konpromisoa eta gogobeteta handitu; enpresearen erantzukizun soziala islatu; bezero eta lankideen hizkuntza-hautua errespetatu; eta

arrakastarako aukera gehiago emon", hain zuzen be.

Bikain Ziurtagiria eskuratu ahal izateko erakundeak ebaluazioa jaso eta gaitutako behar dau. Ebaluatzaileak Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) jasotako adierazleak aztertzen ditue euskerearen presentzia, erabilera eta kudeaketa ebaluetako. EMEk bi ardatz ditu; zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza. Arratiako enpresaren batek Zirtagirira aurkeztu gura badau eta laguntza behar badau eusGara egitasmoa teknikariengana jo leike.

### eusGara

Arratiako enpresetan euskeraz behar egiten lagunduteko eusGara proiektua abiatu eban Errota Fundazioak 2018an. EusGarak enpresetan euskeraz behar egiteko, debaldeko zerbitzu teknikoak eskaintzen dau. Hizkuntza aholkularitza, zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza hobetuteko aukerak, diagnostikoa eta aurrera begirako proposamenak, itzulpenak, zuzenketak, euskerazko baliabideak, lantaldeak motibetako saioak, eta dirulaguntzen eta ziurtagiriaren gainera informazioa,

besteak beste.

### Auto tailer eta konzesionarioentzako eusGara kanpaina

2020an, arlo zehatz bateri begirako eskaintza diseinatu eban eusGarako teknikariak, auto tailer eta konzesionarioentzat, "Euskara, zure negozioa zabalteko giltza" lelopean.

Zemendiaren amaieran abiatu eban kanpaina eta bost enpresagaz hasi dira lanean.

2021eko lehenengo hilabeteetan egongo da kanpaina abian eta Arratian dagoan edozein auto

tailer eta konzesionarioek hartu leike parte. EusGarako teknikariak, besteak beste, hizkuntza kudeaketarako gakoak emoten deutsez tailerrekoai, errotulaziorako txantiloioak, aurrekontu eta faktura ereduak...

Izan be, "Arratia osoan 29 izan dira arlo horri lotutako negozioak eta arratiarri zerbitzua zuzenean emoten deutseenez, ehunka herritarrengan eragina izango dauan egitasmoa da" azaldu deutse BEGITUri Andoni Solorzano eta Miren Madariaga eusGarako teknikariak.





## ARRATIA, ZEBERIO

## Bateragune auziko epaiketea ez errepetiduteko konzentrazioak

### Erredakzioa

Espainiako Auzitegi Gorenak, Batera-gune auziko epaiketea errepetidutea ebatzi dau eta horren kontrako konzentrazioak egin ziran abenduaren 19an, Arantzazun, Areatzan, Diman, Igorren, Lemoan, Zeanurin eta Zeberion. Guztira 270 lagun inguru batu ziran *Demokrazia!* lelopean.

Abenduaren 14an, jakinarazo eban Auzitegi Goreneko bigarren aretoko hamasei epaileak aho batez onartu ebela Arnaldo Otegi, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez, Rafa Diez eta Sonia Jacinto barriro epaitzea. Oin dala 10 urte atxilotu eta zigor osoa bete eban arren, 2018an, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ebatzi eban inpartzialtasun barik epaitu eta kondanau ebe-



zala. Hori dala-eta, Auzitegi Gorenak zigorrak balio barik itxi ebazan. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak baliobakotutako epai bat barriz zabalduen dan lehenengo aldia da.

Euskal Herriko ia 200 herritan

egin ziran konzentrazioak. Deialdiagaz bat egin eban, EH Bilduk, Ahal Duguk, Ezker Anitzak, ELAK, LABek, CCOOK, Steilasek, ESK-k, Gure Eskuk, Emakumeen Mundu Martxak, Bilgune Feministak, Sarek eta Etxerarek.

## ARRATIA, ZEBERIO

## Euskadiko Turismoaren kode etikoagaz dabiz beharrean eskualdeko 7 enpresa

### Erredakzioa

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa, Eusko Jauriaritzako Turismo Merkataritza eta Kontsumo Sailak garatutako programea da. Honegaz kalidade estandar guztiak batu egin dira, turismo eragileak eguneroko jardunean gizarte eta ingurumen erantzukizunak txertatzeko. Gorbeia Jomuga Turistikoko barruan dagozan Zeanuriko lau enpresa, Zeberio bi eta Areatzako bat dabiz lanean programa honegaz.

Programeak "azpimarratzen dau turismoagaz erlazioautako jarduerak genero bardintasuna, inklusioa, tolerantzia eta irisgarritasuna

errespetetan dituela. Era berean, ingurumenaren iraunkortasuna, ekoturismoa eta natura-ondarea eta ekosistemak errespetetan dituan turismoa sustatzeko ekintzen bitartez dago babestuta" adierazo eban Gorbeia Jomuga Turistikoko iturriak.

Oin arte, lehiakortasun programa guztiak independienteak ziran, eta enpresa edo zerbitzu bakotzak garrantzitsuzat jotzen eban balioen alde egiten eban. Kode Etikoak barriz, programa guztiak bakarrean biltzen ditu.

### Eskualdeko zazpiak

Programa honetara, Areatzan dagoan ADR Gorbeialde erakunde

kudeatzailea; Zeanuriko Altzuste eta Amalau landetxeak, Zuhaitz etxeak eta Etxegana hotela, eta Zeberio Taberna Zaharra eta Ermitabari apartamentuak batu dira.



## ARRATIA

## Monica Nuñez-en ikastaroagaz ekingo deutso Ilgoranek ikasturteko programazinoari

### Erredakzioa

Urtailaren hasieran, COVID-19a dala eta neurri murriztaile barriak ezarri ezean, urtailaren 13an, *iVa por ellas!* izeneko ikastaroa hasiko da eta, eguaztenero, martiaren 3ra arte luzatuko da. Saioak Zeanuriko Kultur Etxean izango dira 17:45etik 19:45era, Monica Nuñez trebatzailearen eskutik.

Tailerraren helburua, liburuetan

agertzen ez diran andra miresgarriak ezetutea da. Andra anoni-moak baina errastua itxi dabanek ikusi arazo egingo dira tailerrean eta esker oneko ekitaldia bultzatuko da.

Genealogia, memoria kolektiboa... Aurrekoen burrukak, erresistentzia estrategiak eta abarren jakintzak partekatuko ditue partaideak eta esker ona adierazoteko sormen lan bat egingo dabe.



Izena Arratiako Udalen Mankomunitatean edo 688 627 393 telefonoan emon behar da.

## ZEBERIO

## Hamabostean behin itxi daitezkez tamainu handiko hondakinak

### Erredakzioa

Hileko bigarren eta laugarren eguenetan jasoten ditue Zeberion altzariak eta tamainu handiko beste hondakinak. Hondakinok, bilketa aurreko eguneko 20:00etatik eguneko 08:00rak arte itxi behar dira eukiontzi arrunten ondoan.

Tamainu handiko hondakinak, altzariak, etxetresna elektrikoak eta beste batzuk (lanparak, koadruak, espiluak eta abar) dira. Bilketa zerbitzuak, tratamendu plantara eroango ditue birziklatzeko.

Informazio gehiagorako, 900 840 320 debaldeko telefono zenbakira deitu daitezke.

### Hondakinak murrizteko kanpaina

Udaltalde 21 Nerbioi-lbaizabalek hondakinak ondo bereizi eta murrizteko kanpaina bat abiatu dau. Izan be, hondakin gitxiago sortzeak, ingurumenari onura egiteaz gainera, hondakinak tratetako gastua murriztu egiten dau eta aurreztutako dirua beste udal zerbitzu batzuetara bideratu daitezke.

Horretarako, etxetara jakinarazpen bat bialdu da aholkuakaz, eukiontziaren biniloak ipini dira informazioagaz eta internet bidezko kanpaina egin da, besteak beste. Hondakinak murrizteko konsumo eredu aldatu behar da eta Udaltalde 21ek, ontzi berrerabilgarriak erabiltzera erosketetan, eta bakarrik behar dana erostera konbidatzen ditu herritarrak.

## ZEBERIO

## Udalak jostailu sexistak ez oparitzeko kanpaina egin dau

### Erredakzioa

Jostailuak sexuen arabera bereizteak estereotipo matxistak indartzen dituala jakinda, urtero lez, Gabonetan Zeberio Udalak jostailuak transmitiduten daben mezuaren gaineko hausnarketea bultzatu gura izan dau.

Izan be, olgetan egitea ikastea da eta sexuen araberako jostailuak eragina daukie neskak eta mutilak egiten dituen aukeretan. Izan be, neskak mekanika eta



zientzietan gitxienekoa izateak, abentura eta ekintza jokoetan lekurik ez izateagaz loturea dauka. Horregaitik, kanpainen, "aurten be, jostailuak aukeratu eta erosi aurretik, baztertu pink and blue mezu sexistari lotutako katalogoak" dinoe.

## ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Neurri zorrotzagoak Gabonetan

### Erredakzioa

Abenduaren 10eko Lehendakariaren Dekretuak COVID-19ari aurre egiteko neurriak arindu zituan; abenduaren 22an, barriz, neurri horreek zorrotz zituan Jauriaritzak, egun seinaladuetan jente metaketak eta topaketetan emondako denporea mugatutako. Neurri barriak eragin deutsee mobikortasunari, epeai, ordutegiari, jente kopuruari eta merkataritza zein ostalaritza.

Mobikortasunari eta epeai jago-kienez, abenduaren 23tik 26ra eta abenduaren 31tik urtailaren 1era aukerea egon da Hego Euskal Herriko mobidutako zein Espainiara joateko (abenduaren 30etik urtailaren 2ra beharrean), baina baka-

rik senideakaz alkartuteko.

Etxeratze agindua 22:00etatik 06:00etara ezarrita dago, baina abenduaren 24ko eta 31ko gaueetan zirkulazino-muga 00:30era mugatu zan, aurreikusitakoa baino ordu bete lehenago. Urtezahar gauean eta urtebarri egunean, familia topaketak sei lagunera mugatu dira, 10 personara beharrean.

Merkataritza eta ostalaritza begira, abenduaren 24, 25, 31 eta urtailaren 1, 5 eta 6rako 18:00etan ixtea izan da ezarritakoa, farmazia, zerbitzugune eta gasolindegien kasuan izan ezik.

Abenduaren 25 eta urtailaren 1 eta 6an merkataritza eta ostalaritza establezimenduak ezin izan dira goizeko 9ak baino arinago zabaldu.



ARRATIA

# Gabonetako egitarauetako kultura jarduerak jarraituko dabe urtailean

## Erredakzioa

Gabonetako programa batzuk ez dira amaituten urteagaz batera eta horregaitik, udalak eta alkarteak antolatuta, kultura eta aisialdirako jarduerak dagoz aukeran Arratian. Holan, besteak beste, antzerkia dago programata Igorren; kontzertua Lemoan, eta magia saioa, Zeanurin. Errege Magoak Bediako plazan eta Igorreko Lasarte Aretoan egongo dira Errege egun bezperan.

## Bedia Urtilak 4, astelehena

17:00etan, Arriaga Antzokira ABAO txiki kontzertura urtekera.

## Urtilak 5, martitzena

16:30ean, Errege Magoak Bediako umeak hartuko dabez euren gutunak jasoteko plazan.

## Igorre Urtilak 4, astelehena

19:00etan, Yllana konpainiaren *Greenpiss* antzerkia Lasarte Aretoan.

## Urtilak 5, martitzena

Erregetako Kabalgata saio desbardinak Lasarte Aretoan.

## Lemoa Urtilak 4, astelehena

19:00etan, Raust taldearen kontzertua Gaztetxean.

## Urtilak 7, eguena

19:00etan, garbiketua eta asanbladea Gaztetxean.

## Zeanuri Urtilak 5, martitzena

18:00etan, 2 eta 10 urte bitartekoentzat eta 19:30ean, 10 urtetik gorakoentzat Asier Kidam magoa Kultur Etxean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

# Herriz herri urtailaren 9an mobilizazioetarako deialdia egin dau Sarek

## Erredakzioa

Preso eta igeslarien etxeratze prozesuaren eta alkarbizitza eta bakearen alde manifestazioa egin izan da urtero urtailean. Aurten, barriz, herriz herri kalera urteteko deialdia egin dau Sarek, *Bidea gara* lelopean.

Oingo egoerak eta osasun-krisiaren ondorioz, beste modu batera egingo da preso eta erbesteratuak etxeratzeko aldarikapena. Izan be, urtailaren 9an 17:30ean modu bateratuan egingo dira ekitaldiak herri guztietan, osasun segurtasunerako neurriak errespetatuta.

"Konponbidearen, bizikidetzaren eta bakearen aldeko behararen parte aktiboa izateko hartua dauan konpromisoa" berretsiko dabela aurten be dinoe Sarekoak; izan be, "presoai apliketan jakien sal-

buespeneko araubideari amaiera emoteko eta espainiar estaduko kartzeletan gainerako presoai apliketan jakiezan lege arruntak apliketako lanean" dabiz. Hori guztiori, gizartearen aktibazioagaz batera egin gura dau; "euskal gizartea estadiak eta gobernuak mobiduarazoten dauan motorra dalako".



ARTEA

# Arteak 2021eko aurrekontuak onartu ditu

Abenduaren 18an onartu ziran 2021eko udal kontuak EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrako botoagaz. Udalak guztira 1.098.789 euro kudeatuko ditu, igaz baino %3 gitxiago.

## Erredakzioa

Gastu finko eta dirulaguntzetan 2020an baino gehiago gastatea aurreikusten da; aurreko urtean baino 5.600 euro gehiago, hain zuzen be. Inbersinoak barriz, %19 jeitsiko dira; igaz baino 36.000 euro gitxiago. Eta euretako batzuk igaz egin behar ziranak, baina COVID-19ari aurre egiteko neurriak dirala-eta egin ez ziranak, izango dabe lehentasuna. "Mataderoan gaztelekua egitea eta Eleixabeitiko ur sarea barriztuta dira horreetako bi" azaldu deutso BEGURI Alberto Intxaurrega Arteako alkateak. Inbersino honeen diru partidak 20.000 euro eta 55.000 euro dira hurrengo hurrengo. San Migel eleizako portikoa konponduten lagunduteko, Ekomuseoa egon zaneke gunerako eta Industrialdean led argiak ipinteko be diru partidak dagoz.

Kultureari jagokonean, 2020-2021 ikasturteko ikastaroak aurre-

ra ateratea ebatzi eban Arteak eta martxan dagoz. "Ahalegin handia egin da ikastaro guztiak mantenduteko eta herriari zerbitzu hori emoteko. Lehengo urtean baino jente gehiago dago ikastaroetan" dino Ainara Sanchez zinegotziak. Bonuak be aterako dituela dino alkateak eta lehen sektoreko dirulaguntzetarako 2.000 euroko diru partidea dago.

## EH Bilduk kontrako botoa

Kontrako botoa emoteko errazoen artean, EH Bilduren proposamenak ez ziralako kontuan hartu eta kultura eta gizartegintzarako dirua "guk uste dogu asko murriztu dala eta gagozan egoeran garrantzitsua da herrian bizitza eta herritarron sozializazioa herrian bertan egitea" aitatu eban Itsaso Arizabala EH Bilduko zinegotziak.



Aurrekontuak onartu ziran bilkurako irudia.

ARANTZAZU, AREATZA, LEMOA

# Arantzazuk, Areatzak eta Lemoak hornidura elektrikoaren esleipena bateratu dabe

## Erredakzioa

Energia garbia erosi eta prezio hobea lortuteko asmoagaz elektrizitate hornidura eskaintza publikora alkarregaz atera dabe. Energia %100 garbia eta prezioan %10eko jaitsiera lortutea espero dabe. Eskaintza publikora urte biko kontratua ateraten da eta hirugarren bat luzatuteko aukerea dago.

Baldintzetan hiru udalen artean, 1.215.000 KW gitxi gorabeherako konsumoa eskaintzen da. KW kopuru hau 2019ko hiru udalen konsumo erreala izan zan, eta eskaintza honetan datu orientagarri moduan erabilten da. Izan be, herri bakoitxak konsumoa gitxitu leike energia-efizientiarako neurriak hartuz, edo handitu puntu barriak ipiniz.

Eskaintzan hiru lote desbardin dagoz, lote bakoitza kontratutako

tarifaren arabera da. Energia hornitzaileak lote bakoitxaren prezio bat eskainiko dau eta udal bakoitxak bere lotea egokituko dau. Hiru udalontzat prezioak bardinak izango dira.

## Energia garbia

Energia garbia erostea da helburu nagusia. "Hornidura egokitzen jakon enpresek, urtero txosten

baten bidez bermatu behar deusku udaloi, saldu deusku energia garbia dala. Bertan energia non ekoiztu eta nori erosi deusku agertu behar da" azaldu deutso BEGURI Asier Aburto Arantzazuko alkateak.

Enpresa hornitzaileak aukeratzeko baldintzen artean, hurrentasuna eta udalakaz hartu-emonak euskeraz izatea dagoz. Udal bakoitxak daukazan puntuen konsumoa ikertu eta puntu bakoitxan kontratutako potentzia errebisau behar dabe hornitzaileak. Opatzen dituan beste hobekuntzak be balorauko dira: kotxe elektrikoentzako karga puntuak eta autokonsumo instalazio barrientzako emon leikiezan erraztasunak, berbarako.



**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**

*Bilaka dezgu jakitza* Bilaka dezgu proiektu

- Salmentan zein dotairuan
- Lurrik (arquitetura, landak, basoak...)
- Etebiziak (guzok, basoak, etxak...)
- Garaioak
- Lote komertzialak
- Publizitateak
- Balonazkoak

- Irakin berak erakitako
- Ingeniaritzak
- Aktibitate-proiektuak
- Izane diseinua
- CEE eta IEE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

**arratia**  
INMOBILIARIA

Lanbidean Agre 23, Sarriena - Igone  
Nafarroa 44, 011 01 01 01 01 01 01 01 01  
201701 11 01 01 01 01 01 01 01 01 01  
arratia@arratia.com



## AZALGORRI

# Zeanuriko Azalgorri zalduna Errodrigo Zaratekoaren kantu epikoan

Arratiako parte bat euki dogu balada leku, Euskal Herriko iparraldeko lurraldeakaz batera, garrantzitsuenetariko bat. Balada edo konta-poema honek gure literaturearen kantu, testu eta istorioen moltso harrigarria osotzen dabe.

## Alvaro Rabelli

Beharbada, Arratiako baladarik ezagunena Zeanurin jasotako *Frantziako andrea* izenekoa daukagu, Hiru truku taldeak ez hain aspaldi kantuz emon euskuna. Izan be, balada istorioen bat kontetan dauan bertsoz emondako genero literarioa dogu, bertsoz egin eta kantuz emona hain zuzen. Balada generoa XVI. eta XVII. mendeen artean garatu ei zan, beti ahozko literaturearen giroan. Hasikera baten balada gai epikoai lotua daukagun arren, denporearen podesuz, beste gai narratibo batzuetara zabaldu ziran, amodiozkoetara barbarako.

XIX. mendean, eta XX.enean be bai, folklorezaleak ahoz bialdutako kantu-poema honek jasoteko berebiziko ahalegina egin eben. Lehenengoz jaso eta atzen hamarkadetan eginiko azterketak agerian itxi dabez testu honeen balio estilistiko eta literario handia, ez bakarrik filologikoa.

Gaur egun, gutako askorentzat, baina, baladak euskal kantariak kantautako abestien artean dagoz. Batzuk-batzuk oingo herri kanta bihurtu dira, barriro bihurtu be. Nor ez da ahalegindu Benito Lertxundik popularizautako *Atharrazteko gaztelua* izenekoa zuberera makalean kantetan?

Bada, euskal baladarik zaharrenak, edota behintzat XV. mendeko gertaeren barri emoten deuskuenak, 1570etik 1640ra bitartean idatzitako Iburguen-Cachopin deritzen kroniketan azaltzen jakuz. Honek baladok artez lotzean dira euskal lurraldeak sutan itxitako XV. mendeko bandokideen arteko burruka eta liskarrak kontagai dabezan kantu epiko edo eresiakaz.

Kronikok aspalditxo ezagunak baziran be –testu, berba eta esamolde askoren iturria izan dira– 1996an Julen Arriolabengoa ikerlari arrasatearrak begiak ipini ebazan kronika honeetan oharkabean pasautako testu baten, *Errodrigo Zaratekoaren kantu epikoan*.

Kantuak, euskera zahar-zaharreen, holan dino:

*Arma escuduac on dira dardos,  
pareric estabe canporacos,  
çaratearrac galdu ei dabe Mar-  
quia-Çuya çeculaco.*

*E[rrodrigo] Çarateco, selan  
xuga[.]a sindean  
jaun Juane Abendañocogas gu-  
dua arçen sanean,  
bi milla guiçon oi ditus bere le-  
lengo deiean,  
lau milla bere baleduque premia  
letorreanean,*

*Cortaçarretarrac delanterea,  
Ibarguendarrac urrean,  
Gastelan Sarmientuarric asco, es  
pareric arean,  
jaun Aseñio Guebaraco ganean  
darda ordean,  
Billela ta Arteaga, anage onac  
urrean,  
saldusunac on[.]rreanean,  
onac arin, gog[oa] sendo, arerio-  
aen asean.  
Errodrigo Çarateco saldi urdi-  
naen ganean,  
bosteun caxcabel urregorrisco*

*saldiac idureanean,  
carrerae laster eroean Erbitegui  
ganean,  
arerioac ur jarraica arrebearen  
semea,  
ona chipi, orpo laster, Abenda-  
nochea.  
–Arren, echosu orain osaba,  
bixeoc justa gaitean.  
–Echi eguidac orailloba, gau  
bixiric noean,  
neure biçian enoaque Urquiçu-  
ren contrean,  
omenaje equingo joat biçia do-*

*dan artean,  
bela vic sar naxaitec Billa Realgo  
torrean.*

Testua non jaso zan ez dakigu, baina bai bertan igarri geinkez XV. mendean bigarren zatian, 1468 aldean, Arratiako eta Arabako Zuiako leinu nagusien arteko ezinikusiak eta eten bako burrukak. Gaur egungo Zuia udalerrian dagoan Markia herria norbereganatuko eta lur horreetan nor gailenduko, etenbakoak gertatu bide ziran erasoak, hilketak eta

Areartzako Gortazar jauregia.



	<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea	
	<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 428 79 34 Igorre	
	<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areartzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza	
	<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre	



etxe-suntsipenak, bai Zigoitia eta Zuiako lurretan Arratiako Abendaño eta Gortazartarren aldetik, bai Arratiako bide-bazter eta etxeetan Zarate eta Mendozakoen aldetik.

Izan be, sasoi haretan Abendañotarren eta Gortazartarren leinuak Arratian nagusi-nagusi ziran, Nafarroako erregeen laguntza ja-

soten eben Ganboatarren alderdikoak; hau da; Gaztelako monarkia aliadutzat eukien Oinaztarren leinuko arerioak.

Bada, Lope de Salazarrek *Bienandazas e fortunas* (XV. mendea) idatzitako lanak *Errodrigo Zaratekoaren* kantu epikoan kontagai dagoan gertaera bera

dakar. Holan, Lope de Salazarrek dinosku "Arratiako Gortazartarrak, Zeanuriko Martin Garcia Axpekoa buru zala", Araba aldera jo ebela Zaratetarrak Zeanurin egindako hilketak mendekatzeko asmoz. Martin Garcia Axpekoa hau Azalgorri ezizenekoa dogu, ulego-

rikkoa ei zan eta. Beraz, arratiarrak Zaratekoen lurak eta etxeak erre ebezan, bertako burua zan Rodrigo Zaratekoa bera preso hartu eben. Zigoitia osoa suntsituta gelditu ei zan. Arabarrak alarmarako kanpaiak jo eta Mendozan eta Langraitzen egoan Gaztelako

armadea martxan atoa ipini zan Zaratekoai laguntzearen. Atzanean, Mendozatik etorritako Juan Mendozakoa kapitainak Zeanuriko Azalgorri ha, zaldun odol-zalea, gaur dan Etxebarri Ipina herrian topau eta bertan hil egin ei eban.



Zeanuriko Axpe jauregia goian eta Mendozako torrea behean.

baserrigintza

ERAIKI DAIGUN  
ALKARREGAZ  
2021 EDER BAT

Igorreko Industrialdea E2 - 48140 - IGORRE | 94 673 68 29 - 652 774 052  
sunaeraiketak@gmail.com www.baserrigintza.com



begitu

Oin Estudio Duendek BEGITUrako  
publizitatea diseinatzeko deutsu.

Publizitate eskusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana.  
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu  
(beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKEREA

Diseinua +  
4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€\*

2. AUKEREA

Diseinua +  
4 modulo BEGITUko portadan

135€\*

Publizitatea:  
649 979 115

\*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.



## PELOTEA

## Amaia Alday dimoztarra eta Oihana Orbegozo Emakume Master Cupeko Binakako txapeldun

### Erredakzioa

Arrigorriagan jokatu zan finala eta Dimako Amaia Aldayk eta Azpeitiako Oihana Orbegozok 22-15 irabazi eutseen Patri Espinar eta Naroa Agirrerri.

Finalean, atzetik aurrera egin behar izan eben Aldayk eta Orbegozok. Izan be, irabazten hasi ziran Espinar eta Agirre, markagailuan 0-4ko abantaila izan arte. Gero, aurrera egiten hasi ziran gorriak, bederatzina bardindu arte. Eta hortik aurrera, Aldayk eta Orbegozok nabarmen egin eben aurrera euren jokoan. Dimakoak peloteari emondako abiadurea erabakiorra izan zan finala irabazteko.

### Txapelak

Sano gaztea izan arren, hainbat

txapel jantzi ditu Dimako pelotariak, 2018an, Emakume Master Cupeko Lau eta Erdiko Promozi-



no mailako txapela irabazi eban; 2019an, Diario Vasco Lau eta Erdiko Txapelketea irabazi eban eta 2020 nahasi honetan, Emakume Master Cupeko binakakoa.

Atzenengo hau dala bereziena dino txapeldunak. "Bereziena, momentu gatxenetan lortu odolako eta lan handia egin behar izan dodalako lortzeako. Horretarako laguntza handia behar izan dot: Oihanarena eta entrenamendu taldearena" azaldu deustso BEGITURI Amaia Alday Dimako pelotariak.

## FUTBOLA

## Ezín partidurik irabazi

### Erredakzioa

Arratia andrazkoen A taldeak partidu bakarra jokatu eban abenduko bigarren hamabostaldian. Gabonetan ez da jardunaldirik jokatu.

Abenduaren 20an Aurrera de Vitoriaren kontra jokatu eban Igorreko taldeak eta 0-2 galdu eban. Denporaldi honetan, liga erdia

jokatu danean, Arratiak ez dau lortu oindino partidurik irabazterik.

Datorren partidua, bigarren itzuliko lehena, hilaren 9an jokatuko dau Arratiak Igorreko Urbieta zelaian Añorga taldearen kontra, arrastiko 16:00etan.

Arratia, zazpi jardunaldi jokatu eta gero atzen postuan dago sailkapenean puntu bakarragaz.

## BIZIKLETEA

## Bizikletak garbitu eta norberak konponduteko gunea ipini dabe martxan Lemoan

### Erredakzioa

Lemoako Udalak bizikletak garbitu eta konponduteko gunea ipini eban martxan abenduaren 24an Gudarien Parkean.

Bizikletea garbitzeko kiroldegiko txartela behar da eta abo-

naduak txartela aktibetako eskatu behar dabe. Abonauta ez dagozanak txartela eskatu behar dabe kiroldegian euro biren truke. Gune honetan gupil puzgailua, norberak konponketak egiteko materiala eta mangerea topauko dabe erabiltzaileak.

GURE HELBURUA  
EZ JAKELA EZER FALTA  
...ETA BATEZ ERE MAITASUNEZ, MAITASUN OSOZ

JANDONIZ  
nagusientzako etxea  
residencia para mayores

EGONALDI IRAUNKORRAK ETA ALDI BATERAKOAK

Jandoniz, 2 · 48390 BEDIA · tel. 94 631 31 30  
www.residenciaparamayoresjandoniz.es

### ARRETA OSOA:

- Lagunduta
- Dementziak
- Fisioterapia- errehabilitazioa
- Zainketa aringarriak
- Post-ebakuntza errekupezioa

### TALDEA OSATZEN DU:

- Medikua
- Erizaintza
- Fisioterapeuta
- Psikologoa
- Lanbide-terapeuta
- Animatzaile soziokulturala

### GAINERA DAUKAGU:

- Ile-apaindegia
- Podologia
- Masajista



## MENDIA

### Urri lehenengoaren 26an izango da Gorbeia Suzien mendi lasterketea



#### Erredakzioa

"Urte zoragarria izango da 2021ekoa. Esan geuntsuen legez, indarrak bildu eta bueltan gara, inozko indartsuen" esanaz hasten da mendi lasterketako antolakuntzeak korrikalariak bialduta mezua. Urri lehenengoaren 26an izango da Gorbeia Suzien lasterketea eta aurten Skyrunner World Serieako proba puntuagarria izango da.

2020ko edizioan dorsala izan dabena, martiaren 1etik 21era

arte izango dabe aurtengo edizioan izena emoteko aukerea.

Dorsalik libre gelditu ezker, igazko itxaron-zerrendea errespetauko dau antolakuntzeak eta martiaren 21etik aurrera abisauko deutse izena emoteko aukerea izango dabena.

Izen-emotea egiteko aukerea daukiena, martiaren 1ean Rockthesport plataformatik jasoko dabena mezuan izango dabez argibide guztiak. Informazio gehiago gura dauanak [www.gorbeiasuzien.eus](http://www.gorbeiasuzien.eus) helbidera jo leike.

## MENDIA

### Alex Txikon Manaslura joan da neguan igoteko

Txikon beste zortzimilako bat egiten saiatuko da, Manasluko gailurrera (8.163 metro, Nepal) igoten, hain zuzen, neguko espedizino batek inoz ez lortutakoa.

#### Erredakzioa

Espedizino hau Txikonek, Simone Moro italiarrak eta Iñaki Alvarez gipuzkoarrak osotuten dabe eta eurakaz sherpak eta bestelako adituak joango dira.

Espedizinoa abenduaren 31n abiatu zan Katmandura eta kanpamentu nagusira (4.900 metro) urtailaren erdikaldera heltzea aurreikusten dabe. Hasikerako helburua altuerako kanpamentu bi jartzea da, igoera arina izan daiten. Hirukotea bide klasikotik igoten saiatuko da eta aurreikuspenak bete ezker, hilabete eta erdi emongo dabe kanpamentu nagusian.

#### Espedizino jasagarria

Talde osoaren konpromisoa eguzki energia garbia eta argotezina elektrizidada sortzeako baliatzea da, ingurumenen aha-

lik eta inpaktu txikiena eragiten saiatuz. Igaz egin zan moduan, EKI Fundazioaren eskutik 50 bat eguzki bonbilla banatuko dira.

Era berean, ura modu jasagarriagoan kudeatzeko AQUADAT startup-aren laguntzea izango

dabe, espedizinoan zehar 4.000 litro botila inguru erabilteari itxita.

Azkenik, Kanpamentu Nagusitik, elikagaien olioak eta gernua iragazteko eta tratatzeko lanak egingo dira.

#### Izaera soziala

Espedizinoak izaera sozial nabarmena izango dau alkarte eta fundazio desbardinaren laguntzeagaz: umeentzako nutrizinoko produktuen 200 kilo eta osasun materialeko 100 kilo baino gehiago eroango ditue, bertako biztanleen artean bananduteko.

Azkenik, Txikonek azken hilabeteetan gauzatu dauan Altuerako Topaketak ekimenari eutsiko deuto: astero egoitzetan konfinauta dagozan adinekoakaz berbaldi digitalak egiteari, hain zuzen.



## TAEKWONDOA

### Andoni eta Lisette Cintado, taekwondoko txapelkun zeberioztarrak

Bitan, 2019an eta 2020an, izan da Jon Andoni Cintado Zeberiokoa Espainiako txapelkun absolutua taekwondoan eta abenduaren 10ean, bigarren egin eban Europako

Txapelketan. Sei urtegez taekwondoan hasi zanetik, dominaz betetako ibilbidea egin dau. Ez da bakarria etxean. Bere arreba gazteak hiru domina lortu ebazan 2019an

kadete mailako Espainiako Txapelketan, brontzezko bi eta urrezko bat.

#### Erredakzioa

Industria Diseinu Ingeniaritzaren azken kursoa egiten dau Andoni Cintadok Valentzian eta Deportivo Olimpo klubean entrenetan dau. Batxillerrean egoanean ipini zan kontaktuan klub honegaz eta hango entrenetako modua sano gustau jakon eta han entrenau ahal izateko, ikasketak Valentzian egitea ebatzi eban. Baina ordu-rako ibilbide arrakastatsua eukan Zeberiokoak.

Izan be, sei urtegez hasi zan Andoni kirol honetan eta 15 aldiz izan da Euskadiko txapelkuna kadete, junior, 21 urte azpikoan eta maila absolutuan. Nazinoarteko

openetan be parte hartu izan dau eta onenen artean sailkatu izan da beti. Poloniako Openean hirugarren sailkatu zan kadete mailan, esate baterako. Bitan izan da Espainiako txapelkun absolutua eta 2021ean be, hirugarrenez, maila goreneko Espainiako Txapelketea irabazten saiatuko da.

#### Lisette eta Julio

Andoni ez da etxean podium batera igon dan bakarria, Sautolabarriko etxe horretan danak diralako taekwondoazale amorratuak. 15 urteko arrebeak be hainbat domina irabazi ditu, batez be, 2019an. Urte horretan, kadete mailako brontzea lortu

eban Espainiako Txapelketan, eta podiumera be igon zan Parisen, Open baten. Barakaldoko Azarri klubean entrenetan dau. Aita da bere entrenatzaileetako bat.

Aitak, Julio Cintadok, arte martzialak egiten ebazan eta "nebea taekwondora apuntau ebenean hasi zan aita. Batez be hobby moduan egiten dau, asko gustetan jakolako" azaldu deutso BEGITURI Lisettek. Taekwondoan berandu hasi arren, podiumera igotea zer zan baekian aitak be. "Bera da kirol honeri pasinorik handiena daukatsana. Ia 40 urtegez hasi zan taekwondoan baina Espainiako Mugendoko txapelkuna izandakoa da" dino Andonik.

#### 2021ean, entrenamentuak helburu

Zezeilean da Espainiako Txapelketea eta hirugarrenez titulua bereganatzea gurako leuke Andoni Cintadok. Baita, Txinan jokatzekoa dan uda partean izaten dan Unibersidadeetako Munduko Txapelketan parte hartzea be. Eta txapelketa bi horreetarako %100ean prestatuko dala dino. Baina ez dau gura 2021erako proiekturik egin. "COVID-19a dagoan moduan egonda, planak egiten badozuz eta ez badira

ateraten, txarto sentidu ahal zara. Orduan nire asmoa da ahalik eta gehien entrenau eta biajeak egin eta lehiazterik badago, ba lehiatu; ezpabere ez".

Lisette-k be entrenamentuak daukaz helburu. "Ni junior mailan hasibarria naz. Eta maila honeek ikasteko dira, gero nebearen mailara heldu ahal izateko. Momentuz nire proiektuak entrenetea eta gauzak ikastea dira eta ahal bada, txapelketak jokatzeko esperientzia izateko eta etorkizunean gauzak ondo egiteko".





## IKUSKIZUNA

**Gorria flamenkoa eta bertsoak buztartzen dituan ikuskizuna, hilaren 16an Lasarte Aretoan****Erredakzinoa**

Miren Amuriza bertsolariaren eta Askoa Etxebarrieta "La Pulga" flamenko jantzariaren arteko alkarrizketa artistikoa da *Gorria* ikuskizuna. Igorreko Lasarte Aretoan egongo da ikusgai urtailaren 16an, 19:00etan.

Izenak kolore gorriaren esangura desbardinai egiten deuto erreferentzia. "Kolore gorriaren sinbologia hari hartuta (bizitza/heriotza, arriskuak, debekuak, ideologia, lotsa, desira...) gatazka askotaz jarduten dabe artista biak ordu eta laureneko emonaldian, gitarrea eta perkusinoak lagunduta".

## ZINEKLUBA

**La doncella film korearra Igorreko Zineklubean****Erredakzinoa**

Urtailaren 7an, Park Chan-wok-ek zuzendutako *La doncella* (Korea, 2016) filma ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan 19:00etan. Susan Waters-en nobelan oinarritutako pelikula honek hainbat sari jaso ditu; tartean, Sitges-eko Publikoaren Saria 2016an edo BAFTA saria ingelesez ez dan pelikularik onenari. Jatorrizko bersinoan ikusi ahal izango da,

azpitoluakaz.

**Sinopsia**

Pelikulea Korean dago girotuta, 1930eko hamarkadan. Japoniar kolonizazioaren sasoian, Sookee neska gaztea neskame hartzean dau andra japoniar aberats batek. Andra hau, urten be egin barik etxe handi baten bizi da, tirano baten menpe. Sookee-k sekretu bat dauka eta iruzurgile baten laguntzeagaz, plan bat ipiniko dau martxan.



## KULTUREA

**Urtean hamabost bat kultura ekintza antolatuteko asmoagaz sortu da Areatza urtaroka**

**Urtailean hasi da ekimena martxan eta lehenengo kontzertua Gatiburena izan da urtailaren 3an. Hurrengoa, Iraia Elias eta Amancay Gaztañagaren Matriuska antzezlana izango da hilaren 30ean.**

**Erredakzinoa**

Horretarako kultura batzorde bat dago herritarrek batzeako atea zabalik dituan, parte hartu gura dauanak [areatza.urtaroka@gmail.com](mailto:areatza.urtaroka@gmail.com) helbidera mezua bialdu behar dau. Abenduan *Erropak erantzi, kulturaz jantzi* izeneko idatzi bat banandu zan egitasmoaren helburuak adierazoz eta jentea bertan parte hartzeri animauz.

Gabonetan be antolatu dauz ekintzak kultura batzordeak, Anima hari laukotearen kontzertuak, berbarako. Ekintza gehienak komentuko kapilla desakralizauan izango dira eta horretarako Udalak hitzarmen bat sinatu dau bertan gazte-justizia zentro bat aurrera erooten dauan Berritzugaz. Hitzarmen honeri esker, espazio hori erabili ahal izango dabe herritarrek kontzertu eta beste ekintza kultural batzuetarako.

## BERBALAGUN

**Arratiako Berbalagun bidelagunen bila dabil****Erredakzinoa**

AEK-k Areatza eta Lemoan Berbalagun egitasmoa dinamizatzen dau eta bidelagunak behar ditue taldeak osotu eta bideratuten lagunduteko.

Bidelaguna euskeraz dakiena da, ikasten dabilenari lagunduten deusana. Arratiako edozeinek parte hartu ahal dau Berbalagunen, goian aitatutako herrietan.

Momentu honetan bost talde dagoz martxan, hiru Lemoan eta bi Areatzan. Eta talde gehiago sortuteko personeren bila dabiz, batez be, bidelagunen bila.

Dinamizatzaileak BEGITURI adierazotakoaren arabera, ez da

**Areatza urtaroka webgunea**

Hurrengo ekintzak eta oindino zehaztu barik dagozanak Areatza urtaroka webgunean agertzen dira. Izena emon daiteke bertan, intereseko ekintzan klikautu. Ha-



ta guzti be, udaletxera deituta be emon daiteke izena.

**Kultura eskubide unibersala**

Pandemiari aurre egiteko neurriak golpe latza emon deusie kultureari eta hilabeteetan ez da apenas kultura ekintzarik egon herrietan. Areatzako kultura batzordeak kulturearen aldeko aldarria egin dau. Batzordekoen esanetan, "kultura eskubide unibersala da, persona guztiai segurtu beharrekoa; bai eta herri guztiai be. Horregaitik kulturadun andra eta gizonez osotutako herria gura dogu, herritar sortzaile, kritiko, burujabe eta librez osotutakoa eta sinisten dogu kultura helburu hori lortzeako bitarteko itzela dala".

Kultura bultzatzeak gainera, kultureagaz lotutako lanpostuak mantenduten lagunduten daua-la gogora arazoten dabe, eta herritarrek "sortzaile eta parte-hartzaile" izango dauan "herritik eta herrirako" sortutako kultura bultzatuko dabela dinoe.

perfil zehatzik behar parte hartuteko, euskeraz bizi diran euskaldunak gura ditue, gainerako Berbalagunen bidelagun izateko. Gainerako horreek, besteak beste, euskera ikasleak, euskera hobetu gura dabenak eta euskeraz egiteko aukerea izan gura dabenak dira.

Bidelagunak hartu eta emon egingo dau: emon, taldeak zehaztuten dauan maiztasunagaz bertaratutea eta, horregaz batera, jenteari laguntzeko prestutasuna eukitea; hartu, jentea ezetu, opariak eskuratuteko aukerea eta euskeraz egiteko eta egin gura dabenai lagundutea.

Interesa dauanak honek



ditu hartu-emonetan ipinteko bideak: 662 199 033 telefono zenbakia edota [arratia\\_berba@aei.eus](mailto:arratia_berba@aei.eus) helbidea. "Edozein artatuteko prest egongo gara eta pozarren emongo deutsegu behar dauan informazioa eta laguntzea. Beraz, jentea anima gura dogu Arratia euskaldunduteko!" dinoe dinamizatzaileak.



## BEGITU

### Egin zaitez Begitu-lagun egin zaitez gure lagun



#### Erredakzioa

Bizkaia Aurrera Kultura Bonua (BAKB) izenpean, Bizkaian kultura konsumoa bultzatzeko asmoz, bonuak kaleratu zituan BFAk igazko urri lehenengoan. Bonu honek Begitu-lagun izateko aukera parebakoa eskaintzen dabe; izan be, bonuokaz, Begitu-lagun egin ezkeru, Begitu-lagun barriak 15 euro pagau eta BEGITUK 40 euro jasoko dauz. Bonuak zemendian amaitu ziran arren, aurretik eskuratu ebezenak maitzaren 31ra arte erabili leikiez. BEGITU hobetuteko baliabide ekonomikoak behar dirala eta 2021ean be, 50 Begitu-lagun barri egiteko kanpaina ipini dau martxan aldizkaria kudeatzen dauan Zertu Kultur Elkarteak. Arrainak ura eta akerrak mendia biziteko behar badau, zuk Begitu-laguna izan behar dozu BEGITUK bizitzaren gauzarik politenak kontetan segidu dagian.

Bonurik euki ez arren be edonor egin leiteke Begitu-lagun 35, 55 edo 75 euroren truke urtean. Gainera egiten diranen

artean Garena jatetxean lagun birentzako menu degustazioa zozketatuko da aprilean. Holan egin dau BEGITUK abenduan be, Begitu-lagun egin diranen artean menua zozketatu dogu eta irabazlea Saioa Zubiaur izan da.

#### Opariak trukean

Begitu-lagun barriak opari moduan, telazko boltsa bat, besoko argi islatzailea eta zortzi liburu jasoko ditu, eta Dimako Garena jatetxean lagun birentzako degustazio menuaren zozketan sartuko da.

Liburuok Angel Larrea eta Juan Rekalderen *Arratia Inguruko Hiztegia* eta *Berbategitxoa*, Alvaro Rabelliren *Ustezko fikzioak* eta *Saguzarren profhezia*, Peru Tximaluze alemaniar ipuin klasikoaren euskerazko bersinoa, Arratia Musika Eskolako 25 urteurreneko monografia eta Iker Yurrebasoren *Haizea aurpegian* dira. Nerea Zuloaga eta Iratxe Andikotxearen *Kontaidazu! Kontaidazu!* ipuin eta abestien liburu-CDa be eroango dabe Begitu-lagun barriak.

## LEHIAKETE

### Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketako bigarren edizinoko irabazleak hilaren 23an emongo dira jakitera Lemoan egingo dan ekitaldian

Zertu Kultur Elkarteak Lemoako Udalaren babesagaz bigarrenaz antolatu dau lehiaketea. Ekitaldia Lemoako kiroldegian izango da urtailaren 23an, 19:00etan.

#### Erredakzioa

Sari banaketeaz gainera, bertso trama erotikoa gidatuko dau Arkaitz Estiballesek, Uxue Alberdi eta Sustrai Colina izango dira bertsolariak eta Zuriñe Yarrantuk aurkeztuko dau sari banaketa ekitaldia. Izena [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean emon behar da urtailaren 13tik 20ra bitartean.

Hiru sari emongo dira. Irabazleak 600 euroko saria izango dau, bigarrenak 400 eurokoa eta Arratiako narrazio sarituaren egileak 250 euro jasoko ditu. Irabazleak nortzuk izan diran ekitaldian bertan emongo da jakitera. Egileak, Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatea, Zertu Kultur Elkarte kide baten eta epaimahaikideren baten eskutik jasoko ditue sariak.

20 minutu inguru iraungo dau Zuriñe Yarrantuk gidatuko dauan ekitaldiak. Bertan, sariak emoteaz gainera, bertso trama erotikoz gozatuteko aukerea egongo da sari banaketa ostean. Eta eguna biribiltzeko, jostailu erotiko bi zozketatuko dira publikoaren artean.

Urtailaren 23an

LEM OA UDALA

ARRATI AKO KALENTURAK

ZERTU

Ipuin Erotikoen Lehiaketa

SARI BANAKETE

Zuriñe Yarrantuk aurkeztuta

19:00etan, Lemoako kiroldegian

Bertso trama erotikoa

Arkaitz Estiballes tramagile

Uxue Alberdi eta

Sustrai Colina bertsotan

Publikoaren artean jostailu erotiko bi zozketatuko dira.

IZEN-EMOTEA:

[www.lemoa.net](http://www.lemoa.net)

urtailak 13-20

\*2021/01/13 09:00etatik 2021/01/20 09:00etara

## DUNBA

### Irudikatu (Imagine)

#### Inazio Zubizarreta eskolako 5. mailako ikasleak

Irudikatu hemen euskaraz gu alai inor ez da erderaz euskaraz nonahi.

Harilkatu zirrarak ametsak ere bai.

Irudikatu izar gorri bat zeruan maitasunean libre dantzari munduan.

Irudikatu denak lasai eta pozik egun berria dator

izan beti gogoan gure hizkuntza gurekin nahinora eroan.

Irudikatu musuz beteta eskola aupa ameslariak ez etsi inola.

Irudikatu denak alai bakean batera ume guztiak elkarrekin kantuan gerrarik eta goserik ez daukagu munduan.





## AGENDA

**URTAILAK 4  
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenerdik barikura Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko.

**AREATZA**

Negu osoan zehar geolokalizazio jarduerak. Aukeratu Gorbeia Parkeko zonalde bat, koordenatuak jarraitu eta saiatu proposatutako puntuak aurkitzen. Materiala emailen bidez edo Parketxera hurbilduz eskuratu daiteke.

Erreken gaineko *lbaialde* erakusketea ikusgai Parketxean.

**ARRATIA**

Areatzan eta Lemoan Berbalagun egitasmoan bidelaguna izateko izena emon 662 199 033 telefono zenbakian edo [arratia\\_berba@oek.eus](mailto:arratia_berba@oek.eus) helbidean.

Nerabeentzako II. Bziber Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik hilaren 8ra arte. Azkue Fundazioak antolatuta. Tik Tok aplikaziorako lehiaketa da. Bizkaiko, 11 eta 16 urte bitartekoak, euskerazko aisialdirako aukera izan dagien sortutako ekimena. Probak zuzen egiteko, garrantzitsua da oinarriak irakurtea (ikus [bziber.eus](http://bziber.eus)).

Arratia Gaztedi programearen barruan, Makina-erremintako CNC CAD-CAM ikastaroa Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegian 18-35 urte bitartekoentzat. Arratiako Udalen Mankomunitateak eta Bizkaiko Foru Aldundiak %100 finantziauta. Informazio gehiagorako [jonzabala@zulaibar.org](mailto:jonzabala@zulaibar.org) helbidera idatzi edo 94 673 91 16 telefonora deitu.

**BEDIA**

17:00etan, urtekerea Bilboko Arriaga Antzokira, ABAO txiki kontzertura. 4 urtetik gorakoentzat.

**IGORRE**

Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta

94 685 25 30 telefonora deituta edo [liburu.igorre@gmail.com](mailto:liburu.igorre@gmail.com) helbide elektronikora idatzita. Astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:00etatik 14:00etara, eguaztenetan 16:00etatik 20:00etara.

Hilaren 8ra arte, Lasarte Aretoko

**Yllana antzerki taldearen lan barria Lasarte Aretokoan**

Urtailaren 4an, 19:00etan, Yllana antzerki taldearen *Greenpiss* lan barria ikusi ahal izango da Lasarte Aretokoan. Taldearen beste lan gehienak legez, testu bakoa da.

*Greenpiss* ekologia eta gizakiaren etorkizunaren gaineko satirea da. Euren umore bereziagaz, Yllanakoak, beroketa globala, plastikoen larregizko erabilera, animalien sarraskiak, mugabako konsumismoa eta gure espeziearen desagertze posiblearen gainean jarduten dabe lan honetan.

bazkide izateko txartela merkeago. Egiteko edo barrizuteko, 09:00etatik 14:00etara Kultur Etxera deitu zitea eskatzeko.

**LEMOA**

Liburutegia zabalik arrastiko ordutegian, astelehenerdik barikura 16:30etik 19:30era Kotxepin Kulturgunean. Liburuak maileguan hartu eta itzultzeko baino ezin da erabili liburutegia.

19:00etan, Raust taldearen kontzertua Gaztetxean.

**URTAILAK 5  
BEDIA**

16:30ean, Errege Magoak Bediako haurrak hartuko dabez euren gutunak jasoteko plazan.

**IGORRE**

Arrastiz, Erregetako Kabalgatea, saio desbardinak. Lasarte Aretokoan.

**ZEANURI**

18:00etan, 2 eta 10 urte bitartekoentzat eta 19:30ean, 10 urtetik gorakoentzat Asier Kidam magoa Kultur Etxean.

**URTAILAK 7  
IGORRE**

19:00etan, zinekluba *La doncella* Lasarte Aretokoan.

**LEMOA**

19:00etan, garbiketea eta asanbladea Karabie Gaztetxean.

**URTAILAK 9  
ARRATIA**

17:30ean, Sarek deituta, *Bidea gara* ekimeneko preso eta igeslarien aldeko ekitaldiak herrietan.

**URTAILAK 10  
IGORRE**

16:30ean, zinea *Erase una vez...*; 18:45ean, *Nunca, casi nunca, a veces siempre* Lasarte Aretokoan.

**URTAILAK 13  
ZEANURI**

17:45etik 19:45era, martiaren 3ra arte eguazteneko, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *¡Va por ellas!* Ikastaroa Monica Nuñez-en eskutik. Andra miresgarri anonimoen istorioak eta errastuak ikusiarazo, partekatu eta esker oneko ekitaldia bultzatzeko tailerra. Kultur Etxean.

**URTAILAK 16  
IGORRE**

19:00etan, *Gorria* jantza ikuskizuna Lasarte Aretokoan.

**URTAILAK 17  
IGORRE**

16:30ean, zinea *Dragoiaren gidaria*; 18:45ean, *El Drogas* Lasarte Aretokoan.



begitu 2021A  
BESTE BEGI  
BATZUKAZ **BEGITUTEKO!**

ZORIONAK ETA  
URTE BARRI ON!



# KOMIKIA

Iman Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK ETXEA ALOKAIRUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazio onean. Hilean 700 euroren truke. Kontakutua zenbakia: 666 125 725.

### PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzelea eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

### KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

### KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzian. Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

### ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizaua egingo deusut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: [narao\\_esparza@hotmail.com](mailto:narao_esparza@hotmail.com) (lehen hitzordua doban).


**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Gorria* ikuskizunerako.

Leire Amuriza (Otxandio)  
Nagore Lekue (Areatza)



**begitu**

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umeen moda  
**sema**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [sema@topagunea.com](mailto:sema@topagunea.com)

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
[zekutzejatetxea@hotmail.com](mailto:zekutzejatetxea@hotmail.com)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

**begitu**

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 · 94 673 70 55 · 94 612 11 96 · Faxe 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea · Igorre (Bizkaia)

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3 - 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel.: 94-673-70-87  
Tel.: 609-79-40-54

**Dia %**  
**PEDRO AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

*Pinturas Anatia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
Publizitatea: 649 979 115  
**begitu**  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**BIZARRINAK**  
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta bukunduten dogu  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



# begitu

arratia  
ubide  
zeberio



## BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2021EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAKKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2021ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Hori egiteagaitik **Garena** jatebixean lagun birentzako degustazino menua zozketatuko dogu aprilean.



\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  35€  55€  75€  15€

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.



Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroren truke **Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!**

LEHOA  
946 31 44 06  
ZABAL@ALKIZABAL.NET

## ALKIZABAL

LEHOA - BASAURI  
www.alkizabal.net

BASAURI  
946 31 03 99  
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA














Gugaz harremanetan ipinteko

Publizidadea:  
649 979 115

# begitu

94 631 73 14  
eta  
649 979 112



[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)



[www.begitu.org](http://www.begitu.org)